

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Ordenantza Fiskalaren Aldaketako Iragarkia**

Basauriko Udalaren Udaltzakoak, 2023ko urriaren 26a egindako ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zien honako ordenantza fiskala eta prezio publiko:

1. Kudeaketa, bilketa eta ikuskapenari buruzko 1 Ordenantza Fiskal Orokorren aldaketa behin-behinean onartzea.
2. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen 2 Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
3. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen 3 Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
4. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen 4 Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
5. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen 5 Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
6. Eraikuntzen, instalazioen eta lanen gaineko zerga arautzen duen 6 Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
7. Hirigintzako dokumentazio zerbitzua eskaintzeagatik zerga arautzen duen 7 Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
8. Ibilgailuak ibilgetu, kroatu eta bide publikotik erretiratzeko zerbitzua eskaintzeari dagokion tasa, hala nola, horiek udal lokaletan egoteari dagokiona arautzen duen 8 Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
9. Estolderia eta ur hartuarenean zerbitzuak eskaintzeagatik tasa arautzen duen 9. Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
10. Agiri administratiboak luzatzeari buruzko tasa arautzen duen 10. Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
11. Udal hilerriko zerbitzuak eskaintzeagatik tasa arautzen duen 11. Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
12. Auto-taxientzako lizentzia eta baimen administratiboak emateagatik dagoen tasa arautzen duen 12 Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
13. Zarama biltzeko zerbitzua eskaintzeagatik tasa arautzen duen 14 Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
14. Etxe etxeko eta hirugarren adinekoentzako laguntza eta kultura- eta kirol-zerbitzuak emateagatik tasak arautzen dituen 15. Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
15. Ordenantza honek arautzen ditu, udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxu bereziagatik dauden tasak arautzen dituen 16. Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
16. Udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik dauden tasak, horniketaren zerbitzua ustiatzen duten enpresen mesedetan egiten den erabilerarena arautzen dituen 16H Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
17. Udaltzaingoaren zerbitzu bereziak eskaintzeagatik tasak arautzen duen 17 Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
18. Kontrolatu gabeko abereak eta etxeko animalia abandonatuak jasotzeko zerbitzu publikoa eskaintzeagatik ezartzen diren tasak arautzen duen 19 Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.



19. Aurretiazko jakinarazpena edota erantzukizun-adierazpena behar duten establezimenduak ireki osteko kontrola aurrera eramateko udal jarduerengatiko tasa arautzen duen 20. Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
20. Lizentziaren menpe dauden jardueren kontrola egiteko udal jarduerari dagokion tasa arautzen duen 21. Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
21. Ordenantza honek prezio publikoak arautzen ditu, hain zuzen, zerbitzuak eskaintzeagatik edo udal jarduerak egiteagatik arautzen dituen 22. Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
22. Kultura politikako arloak antolatutako prestakuntza edo jardueretara joateagatiko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
23. Udalekuen jarduerara joateagatiko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.
24. Musika eskolan prestakuntzara joateagatiko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa behin-behinean onartzea.
25. Udal euskaltegian prestakuntzara joateagatiko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea.

Erabaki hau jendaurreko jartzen da, interesaturik leudekeenak espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazio eta alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hogeita hamar laneguneko epean. Horrela aurreikusten du Toki Ogasunak arautzen dituen azaroaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikulua, eta Toki Erregimena arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua.

Adierazitako epea igarotakoan, Udalbatzak aurkeztutako erreklamazioak edo iradokizunak aztertu, eta dagozkion behin betiko erabakiak hartuko ditu. Adierazitako epe horretan ez balitz erreklamaziorik aurkeztuko, ordura arte behin-behinekoa litzatekeen erabakia behin betiko bihurtuko da.

Basaurin, 2023ko urriaren 30an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren